

Jai egunak


Gogorarazi nahi dizuegu inauteriak direla eta Ikastolako eta Haur Eskolako haur eta gazteek datorren **astelehen eta asteartean** jai izango dutela.



Tanta txartela

Aurtengo Kilometroak jaia Lazkaoko ikastolari dagokio antolatzea. [Informazio gehiago...](#)

Bestalde, jakinarazten dugu, familia bakoitzeko ikasle zaharrenari otsailaren 20an banatuko diogula **Tanta** txartel bat. Kobrantza errezibo bidez egingo da otsailaren 16ean. Bakoitzaren salneurria **5 €**-koa da eta saria 60.000 € izango da.



Xake festa

Otsailaren 20an, ostiralarekin, **XAKE FESTA** Sutegi Udal Liburutegian, Breogan Estevezen eskutik. Erne, aurtengoan Xakean jokatzeko ezagutzaren arabera antolatu ditugu taldeak! **17:00etan**, **HASTAPENA** edo Xakean jokatzeko ikasteko zertzeladak, eta **19:00etan**, **XAKE JOKOA**, Xakean jokatzeko dakitenentzat. Info+ eta Izen ematea: Sutegi Liburutegian.



HAUR HEZKUNTZA

2-3 urteko gurasoentzako bilera informatiboa

Datorren **ostegunean**, otsailak 19, 2-3 urteko gurasoen bilera informatiboa izango dugu **2-3 urteko gelan** arratsaldeko **16:45ean**.

Haurrik gabe etortzea eskatzen da.



LEHEN HEZKUNTZA

Ez dago berrik

BIGARREN HEZKUNTZA

Gaurko ordutegia

Gogorarazten da, DBH-ko ikasleen gaurko ordutegia 8:25etik 12:30 arte izango dela.



DBH2-ko familientzat oharra

Maila honetako egoeraren inguruan hitz egiteko, hurrengo **ostegunean, otsailak 19**, arratsaldeko **17:00**etan bilera bat egingo dugu ikastolako eraikin gorrian. Bileraren helburua, hartu diren neurrien berri ematea da eta zuen iritziak jaso eta partekatzea.



Irudiak eta stickerrak ezabatu

Azkenaldian dugun kezka baten berri eman nahi dizuegu DBHko irakasleok:

Jakin dugu zenbait ikaslek irakasleen irudiak eta stickerrak WhatsApp edo bestelako aplikazioetatik zabaltzen dabiltzala. Batzuetan, irudi hauek desagokiak, iraingarriak edo beste pertsona batzuen pribatutasuna urratzen dutenak izan daitezke.

Mugikorraren erabilera egokia bermatzeko, zuen laguntza ezinbestekoa da, gurasook zarete eta mugikorraren jabe eta azken erantzule.

Eskaera honakoa da:

1. Stickerrak edo irudi desagokiak (berezi irakasleenak) beraiekin batera ikusi eta ezabatzen dituztela ziurtatzea.
2. Haiekin hitz egitea, irudi edo stickerrak zabaltzeak duen larritasunaz eta besteen pribatutasuna errespetatzearen garrantziaz.

Mila esker zuen lankidetzagatik eta guztion segurtasuna eta ongizatea bermatzen laguntzeagatik.

Kromoak

Azken egunotan berriro ere futboleko kromoen zaletasuna piztu dela sumatu dugu gure ikasleen artean. Hori horrela, futboleko kromoak hasi dira ekartzen ikastolara. Tamalez, ikusi dugu zaletasun horrek gatazka eta desadostasunak sortzen dituela haien artean (trukeak direla eta, galerak, etab.)



Ikastolan elkarbizitza giroa lehenetsi nahi dugu. Hori dela eta, **kromoak etxean uztea** eskatzen dizuegu. Jolaserako aukera kolektiboetan sinesten dugu eta kromoen pertenezia sentipenak horretan eragin negatibo zuzena du.

Mila esker zuen laguntzagatik eta ulermenagatik.